



**Ebazpena, 2021ko martxoaren 22koa, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariarena. Honen bidez Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten da, 2021. urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko beharrezko argibideak ematen dira eta 2021/2022 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen da.**

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 46.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Goi-mailako arte-irakaskuntzen definizioa eta irakaskuntza horien ebaluazioa Espainiako goi-mailako hezkuntzaren antolamenduaren testuinguruan eta Europako esparruan egingo da.

Ikasketa horietan sartzeko, Batxiler-titulua izan beharko da edo Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gaindituta izan beharko da; era berean, hezkuntza-administrazioek probak deitu, antolatu, garatu eta ebaluatu beharko dituzte, nork bere eskumen esparruan. Ikasketa horiek probetxuz egiteko heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak baloratu beharko dituzte proba horiek, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 57.2 artikuluaaren arabera. Horren ondorioz,

## **EBAZTEN DUT:**

### **Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio-eremua.**

Ebazpen honen xedea da Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko urtero egiten den probarako deialdia egitea eta hura arautzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikasleak onartzeko irizpideak ezartzea ere, 2021/22 ikasturterako.

### **Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak**

1. Ikasketa horietara sartzeko probaren helburua irakaskuntza horiek aprobetxamenduz egiteko behar diren heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak baloratzea da.
2. Proba gainditzeak aukera ematen du ikasketa horiek irakasten dituen estatuko edozein ikastetxetan sartzeko, betiere, ikastetxe horietan plaza libreak baldin badaude.
3. Probak dagokion ikasturterako bakarrik balio du.



### **Hirugarrena.- Ikasleek proba egiteko bete beharreko betekizunak.**

Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko berariazko proba egin ahal izango du onarpen-aldian honako baldintza hauek betetzen dituen ikasleak:

- 1.- Batxiler-titulua izatea.
- 2.- Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gaindituta izatea.
- 3.- Teknikari espezialista edo Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari titulua izatea.
- 4.- Unibertsitate-titulu bat izatea.
- 5.- Ondorio akademikoetarako, aurretik aipatutako ikasketen baliokidetzat jotako beste ikasketa batzuk gaindituta izatea.
- 6.- Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako ikasketa artistikoetan sartzeko ezarritako baldintza akademikoak ordezkatzan dituen heldutasun-proba edo Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probaren atal komuna gaindituta izatea.

### **Laugarrena.- Berariazko proba egiteko salbuespenak**

Maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretuaren 5.7 artikulua arabera, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari-titulua dutenek ez dute berariazko sarbide-probarik egin behar.

### **Bosgarrena.- 2021eko proba egiteko izena ematea: prezio publikoak, ikastetxea eta epeak.**

1. Izena emateko epea:

Ohiko deialdia: 2021eko maiatzaren 3tik maiatzaren 21eko eguerdiko 13:00ak arte.

- 2.- Izena emateko prozedura:

Izen ematea on line egingo da Ikasgunea bidez.

3. Agiriak nora eraman:

EASD I D arte AGDE ikastetxera  
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)  
Vitoria- Gasteiz  
Tel.:945-123395; [info@idarte.eus](mailto:info@idarte.eus)



4. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzen duenak xedatzen duenaren arabera, deialdian parte hartzen duten izangaiek 28,02 € ordaindu beharko dituzte, prezio publikoari dagozkionak, sarbide-proba gisa.

5. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, eskabidea betetzeak adierazten du baimena ematen dela eskabidean jasotako datuak Hezkuntza, Saileko fitxategi informatizatueta sartzeko. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak, aipatutako legean aurreikusitakoak, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzan balia daitezke.

### **Seigarrena. – Onarpen-prozesuan izena ematea**

Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetarako berariazko sarbide-proban izena ematea eta EAEko ikastetxeetan plaza eskatzea bi prozesu desberdin eta independente dira.

Berariazko sarbide-probarako izen-ematearekin batera, hautagaiak onarpena (plaza) eskatu beharko du bere interesekoa den ikastetxean, Ikasgunea komunikazio-atarian. Izangai bat, titulazioa dela-eta, berariazko sarbide-proba egitetik salbuetsita badago, onarpen-prozesuan izena emateko eskabidea formalizatu beharko du, eta bertan adierazi beharko du zer ikasketa egin nahi dituen eta zein ikastetxetan, lehentasun-hurrenkeraren arabera.

### **Zazpigarrena.- Proba egitea.**

1. Proba egiteko eguna.

2021ko maiatzaren 29a, goizeko 9:00etan.

2. Proba egiteko tokia:

EASD I D arte AGDE ikastetxea  
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)  
Vitoria- Gasteiz

3. Proba euskaraz edo gazteleraz egin ahalko da. Ikasleak izena emateko eskabidean adieraziko du zer hizkuntzatan egin nahi duen.

4. Proba egiteko esparrura sartzen den ikasleak bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat aurkeztu beharko du (NAN, pasaporte, bizileku-baimena ...), eta proba egiteko beharrezkoak diren materialak eraman beharko ditu.



### **Zortzigarrena.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako izangaien aukera berak izan ditzaten. Eskabide-orrian, egokitzapenak adierazteko dagoen atalean, eskatu nahi duten egokitzapenaren azalpen osoa idatzi ezin badute, erantsitako orri batean jasoko dute.

### **Bederatzigarrena.- Probaren edukia eta balorazioa.**

Sarbide-proba honek lau ariketa izango ditu, eta aurreneko biak bi zatitan banatuko dira:

#### **Lehenengo ariketa. Idatzizko ariketa (denbora: ordubete; balioa: 2,5 puntu)**

A zatia: diseinuari edo/eta arteari buruzko idazki labur batzuk emango dira, izangaiek haiei buruzko iruzkin laburrak egin ditzaten (puntu bat).

B zatia: ikusizko kultura, kultura-kontsumoa, hezkuntza edo/eta diseinuarekin zerikusia duen edo duten gai bat edo batzuk jarriko dira, izangaiek 10 lerrotan iruzkindu eta argudia ditzaten (1,5 puntu).

Ebaluazio-irizpideak:

- Maila narratibo-deskribatzailea ( % 40).
- Kontzeptualizatzeko, argudiatzeko eta laburtzeko gaitasuna (% 40).
- Idazmena (% 20).

#### **Bigarren ariketa. Espazio-ikuskereta eta -eraikuntza (denbora: ordubete; balioa: 2,5 puntu)**

A zatia: test erako proba, espazio-eraikuntzari, garapenei, hedapenei, bolumetriei eta ikuspegiari buruzkoa (1,5 puntu).

B zatia: marrazketa teknikoko proba (puntu bat).

Ebaluazio-irizpideak:

- Espazio-ikuskereta (% 40).
- Definizioaren ulermena eta eraikuntza formala (% 40).
- Aurkezpena, ordena, garbitasuna eta errotulazioa (% 20).

#### **Hirugarren ariketa. Errepresentazioa (denbora: ordubete eta 15 min.; balioa: 2,5 puntu)**

Objektu eta bolumen jakin batzuk emanda, hautagaiek konposizio espazial bat sortuko dute. Helburua da jatorrizko konposizioa ezagutzen ez duen norbait gai izatea errepresentaziotik abiatuta hura birsortzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- Objektuen konposizioa, ordena, egitura eta kokapena (% 30).
- Espazio-ikuskereta eta formaren ulermena (% 30).
- Aukeratutako errepresentazio deskribatzailearen koherentzia (% 20).



- Aurkezpena eta garbitasuna (% 20).

**Laugarren ariketa. Erronka sortzaile-subjektiboa (denbora: ordubete eta 15 min; balioa: 2,5 puntu)**

Emandako material batetik abiatuta (testua, bideoa, musika), elementu batzuk eduki beharko dituen sormen-erronka bat proposatzen da. Elementu horiek ere eman egingo dira.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sormena, kontzeptualizatzeko gaitasuna, konposizio sintetiko eta koherenteen barruan sartuta dauden esanahiak sortzeko gaitasun sinbolikoa (% 40).
- Ikusizko informazioaren konposizioa, ordena eta hierarkia (% 40).
- Egikera eta akaberak (% 20).

**Hamargarrena.- Probaren kalifikazioa.**

Kalifikazioa zenbakitan adieraziko da, eta batetik hamarrerako eskala erabiliko da horretarako, bi hamartarrekin. Bost edo gehiagoko kalifikazioa beharko da ariketa gainditzeko.

**Hamaikagarrena.- Proba ebaluatzeko epaimahaia.**

1. Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du proba ebaluatzeko epaimahaia, eta epaimahaiburua eta gutxienez lau epaimahaikide izango ditu. Epaimahaikideak goi-mailako irakaskuntzetako irakasleak izango dira eta esparruaren berriazko ezagutzak izango dituzte.

2. Epaimahaiak idazkari bat izendatuko du epaimahaikideen artean, eta horrek ebaluazio-akta egingo du. Bertan, sarbide-probako ariketaren kalifikazioa jasoko da.

**Hamabigarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak egitea.**

1. Behin-behineko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2021ko ekainaren 9an, goizeko 10:00etan.

2. Ikasleak behin-behineko kalifikazioak ateratzen diren egunetik ekainaren 11ko goizeko 10:00ak arte egin ahal izango du proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa. Erreklamazio hori epaimahaiburuari egingo zaio, EASD I D arte AGDE ikastetxeko idazkaritzak emango duen eredia erabiliz edo [info@idarte.eus](mailto:info@idarte.eus) helbide elektronikora mezu bat bidaliz, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebatziko da.

3. Behin betiko kalifikazioak. EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2021ko ekainaren 11an, 13:00etan.



4. Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazio hori argitaratu eta hilabeteko epean.

#### **Hamahirugarrena.- Probaren ziurtagiria.**

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiria emateko eskatu ahal izango du EASD I D arte AGDE ikastetxean.

#### **Hamalagarrena.- Ikasleak onartzea.**

1. Ikastetxe publikoak eskaintzeko dituen plazak aztertu ondoren, jarraian adierazten diren ehunekoak erreserbatuko ditu ikasketa hauek egitera sartzeko dauden bide bakoitzerako:

a) Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako titulua edo baliokidea dutelako zuzenean sartzeko dauden ikasleentzat plazen % 15 erreserbatuko dira.

b) Batxiler-tituluaren edo baliokideren baten bitartez sartzeko dauden eta beraraizako proba gainditzen duten ikasleentzat plazen % 79 erreserbatuko dira.

c) Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten ikasleentzat plazen % 3 erreserbatuko dira, betiere, sartzeko ezarrita dauden eskakizunak betetzen badituzte. Horretarako, desgaitasuna duten ikasleek desgaitasun-mailaren kalifikazioa eta aitortpena adierazten dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

d) Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren 9.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, plazen % 3 gordeko zaie goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen duten kirolariei, betiere, dagozkien eskakizun akademikoak betetzen badituzte eta berariazko proba gainditzen badute

2.- c) eta d) ataletan zehazten diren erreserba-kupoetan bete gabeko tokiak b) ataleko erreserba-kupora gehituko dira. Halaber, b) atalean zehazten den erreserba-kupoan bete gabeko plazak a) ataleko erreserba-kupora gehituko dira, eta alderantziz.

3. Honakoa izango da ikasleen lehentasun-hurrenkera, sartzeko moduaren arabera:

a) Salbuetsita daudela-eta zuzenean sartzeko dauden ikasleak:

Ikasle horiek Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluaren edo baliokidetzat jotzen den tituluaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira



b) Berariazko probaren bidez sartzen diren ikasleak:

Ikasle horiek berariazko sarbide-proban lortutako kalifikazioaren arabera ordenatuko dira. Berariazko proban kalifikazio bera duten ikasleek proba hori egin ahal izateko alegatutako tituluaren edo probaren notaren arabera ordenatuko dira.

4. Berariazko proba Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten eskatzaileek lehentasuna izango dute gainerako eskaera guztien aurretik.

### **Hamabosgarrena.- Ezohiko proba.**

Diseinuko go-mailako arte-irakaskuntzak ematen dituzten eskoletako batean plaza hutsik balego, berariazko sarbide-probak egingo dira uztailean, eta proba horretarako ebazpen honetan finkatutako antolaketa, garapena, ebaluazioa, eta ikasleak onartzeko prozedura mantenduko dira.

### **Hamaseigarrena.- Ezohiko probaren egutegia.**

1. Izena emateko epea:

Ez ohiko deialdia: 2021ko ekainaren 17tik ekainaren 25eko 13:00ak arte.

2. Izena emateko prozedura:

Izen ematea online egingo da Ikasgunean.

3. Agiriak nora eramán:

EASD I D arte AGDE ikastetxera  
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)  
Vitoria- Gasteiz  
Tel.:945-123395; [info@idarte.eus](mailto:info@idarte.eus)

4. Ezohiko proba egiteko eguna:

2021ko uztailearen 1, goizeko 9:00etan.

5. Proba egiteko tokia:

EASD I D arte AGDE ikastetxea  
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)  
Vitoria- Gasteiz

6.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak egitea:

a) Behin-behineko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2021eko uztailearen 6an, 10:00etan.



b) Ikasleak behin-behineko kalifikazioak ateratzen diren egunetik uztailaren 8ko 10:00ak arte egin ahal izango du proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa. Erreklamazio hori epaimahaiburuari egingo zaio, EASD I D arte AGDE ikastetxeko idazkaritzak emango duen eredu erabiliz edo [info@idarte.eus](mailto:info@idarte.eus) helbide elektronikora mezu bat bidaliz, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebatziko da.

c) Behin betiko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2021ko uztailaren 8an, 13:00etan.

d) Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazio hori argitaratu eta hilabeteko epean.

### **Hamazazpigarrena.- Probaren ziurtagiria.**

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiria emateko eskatu ahal izango du EASD I D arte AGDE ikastetxean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 22an.

IKASTETXE ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA

Eugenio Jiménez Ibáñez